

IKERKETA ONKOLOGIKO TRASLAZIONALERAKO **LAGUNTZAK – FERRO 2022**

Helburua:

Bekaren xedea da ikertzaile gazteen prestakuntza osatzea onkologiaren arloan eta pazienteei esparru horretan egin diren aurrerapen zientifikoen transmisio arina sustatzea. Horretarako, proiektu zientifiko BAT aitortuko da, mota horretako ikerketan parte hartzen duten Espainiako erakundeetan lan egiten duten profesional berriek aurkeztua.

Eskatzaileak/ikertzaile nagusiaren baldintzak:

- Ikertzaile nagusiak UPV/EHUrekin funtzionario edo kontratu harremana duela egiaztatu beharko du proiektua gauzatzeko epean.
- Doktore titulua 2007ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra bitartean lortu izana, eta, horretarako, PhD doktorego tesia edo baliokidea* irakurri eta gainditu den eguna hartuko da aintzat. Hautagaiek baldintza hori betetzen duen titulu bat baino gehiago dutenean, lortutako lehenengoa hartuko da aintzat.
- Garatzeko edo finkatzeko bidean dauden programak / taldeak / ikertaldeak zuzentzea. Deialdi honen esparruan, garatzeko bidean dauden taldeak izango dira azken hiru urteetan I+G+b arloko lehenengo proiektu baterako norgehiagoka bidezko finantzaketa lortu duten eta duela gutxi sortu diren ikertaldeak, edo proiektua bermatzen duen erakundearen barruan duela gutxi sortu edo finkatu direnak.
- Beren lanak ikerketa onkologiko traslazionalean oinarritu izana, eta aplikazio klinikoaren osagai handia edukitzea.
- Esparru biosanitarioan aplikatzeko potentziala duen proiektu zientifikoa aurkeztea.
- Hautagaiek ezin dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu.

Ezingo dute parte hartu obra edo zerbitzu bidez kontratatutako langileek.

Laguntzaren ezaugarriak:

80.000 €-ko beka, zeina ikerketa onkologiko traslazionalean proiekturik onenari emango zaion, ebazpenaren datatik aurrera. Ikerketa proiektuak ideia originaletan oinarrituta egon behar dira.

Proposamen hori garatzeko aurreikusitako denbora epea 2 urtekoa da (gehienez).

Beka kopurua: 1

Eskabide prozesuak bi fase ditu.

➤ **1. FASEA - Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

- **Ikerketa proiektuaren memoria ingelesez**, deialdiaren txantiloari jarraituz (ez egin 3 orrialde baino gehiago).
- **Ikertzaile nagusiaren CVa**, estatuko deialdi publikoen (CVA) eredu normalizatuen txantilo laburtuari jarraituz.

Epea:

2022ko otsailaren 18ra arte

Hautatutako proiektuak hurrengo fasera igaroko dira.

➤ **2. FASEA - Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

- **Ikerketa proiektuaren memoria ingelesez**, deialdiaren txantilo luzatuari jarraituz.
- **Ikertaldearen CVa (CVA eredu)** Ikertzaile nagusiarentzat CVN eredu izango da.
- **Zentroko zuzendariaren/koordinatzailearen edo gerente zientifikoaren babes gutuna**, non garatzeko bidean dagoen talde eskatzaileari erakunde laguntza bermatzen zaion ikerketarako, eta, zehazki, proiektua egiteko.

Epea:

2022ko apirilaren 4ra arte

Aurkezpena:

Eskabide guztiak elektronikoki bidali behar dira, PDF formatuan, [FEROren webguneko aplikatiboaren](#) edo posta elektronikoaren bidez honako helbide honetara: beca@fero.org

UPV/EHUko barne prozedura:

2022ko martxoaren 25a (hori barne):	Dokumentazioa convocatorias.dqi@ehu.eus helbidera bidaltzea, Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatutako babes gutuna epean lortzeko. Eskabidea Ikerketaren arloko Errektoreordetzari epe horren barruan aurkezten ez bazaio, ezingo da bermatu ikertzaile nagusiak errektoreordeak sinatutako babes gutuna jasoko duenik.
2022ko martxoaren 30a	Ikertzaile nagusiarri errektoreordeak Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik sinatutako babes gutuna bidaltzea
2022ko apirilaren 4a	ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA Ikertzaile nagusiak beca@fero.org / fundaziora bidaliko du dokumentazio guztia.

Informazio gehiago:

FERO fundazioaren kontaktua: beca@fero.org

Arantza Mendivil (Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren Deialdien Atala)

Tel: 94 6017934

Convocatorias.dqi@ehu.eus

